

**Lan baldintzen berreskurapen eta hobekuntzaren bidez hezkuntza publikoa indartzeko, mobilizazioa ezinbestekoa!**

## Langile publikoen enplegua kontsolidatzera goaz!

**A**zken bi ikasturtetan bizitzen ari garen pandemia egoeraren aurrean, ikaragarria izaten ari da irakasleek gure eskola publikoetan egindako ahalegina eta erakutsitako inplikazioa. Are gehiago, hezkuntzako langileak zein zuzendaritza taldeak izan dira, aurrez aurreko hezkuntza segurua bermatzeko zama guztia bere gain hartu behar izan dutenak. Eusko Jaurlaritzak bere arduraz beste egin du eta hezkuntza komunitatea bakarrik utzi du osasun krisi larri honen kudeaketan, hezkuntza sailari galdagarri zaion erabaki eta planifikaziorik gabe zein baliabide hornikuntza gehigarririk gabe moldatu behar izan dute gure ikastetxeek.

Koronabirusaren krisiak agerian utzi du, gure Hezkuntza publikoaren arazo estrukturalak pandemia aurrekoak dira, zein Eusko Jaurlaritzak azken urteetan bultzatutako austeritate eta murrizketa politiken aldeko apustuak ondorio larriak dituela. Agerian utzi du zerbitzu publikoak orohar eta hezkuntza publikoa bereziki sendotzeko beharra.

Horrela, Hezkuntza Publikoan 2016/2017 eta 2017/2018 ikasturtetan zehar mobilizazio eta grebetara eraman gintuzten aldarrikapenek indarrean eta bizi bizirik jarraitzen dute. Denborarekin are argiago geratu da, 2018ko maiatzean Eusko Jaurlaritza eta gainerako sindikatuen artean sinatutako aurrekordioak, ez diola grebetara eraman gintuzten eskaera gehienei erantzun.

ELAk hezkuntza publikoa benetan indartzeko aukera galdu gisa baloratu zuen mobilizazioaren desaktibazioa

ekarri zuen aurrekordio haren sinadura. Mobilizazio haiek sustatu genituen sindikatuok une hartan oso osasuntsu zegoen mobilizazioa elikatu izan bagenu, askoz eduki hobekak lortzeko aukera erreala genuen. 2 urte luze beranduago, diagnosi honetan berresten da ELA sindikatua. Are gehiago, hezkuntza publikoaren egoerak eta bertako langileen lan baldintzek okerrera egin dute eta osasun krisiari lotutako testuinguruan egoera hau areagotu baino ez da egin.

Horregatik, testuinguru zehatz honetan, ezinbestekoa ikusten dugu mobilizazioa. Lan baldintzen berreskurapen eta hobekuntzaren bidez hezkuntza publikoa indartzeko. ELA, bide hori egin nahi duten gainerako sindikatu eta eragileekin beharrezko mobilizazio dinamikak sustatzeko prest dago.

### BEHIN-BEHINEKOTASUNA DATUETAN



# Irakasle funtzionarioak. Enplegu eta lan baldintzen erradiografia labur bat

## Lan baldintzen berreskurapen eta hobekuntzaren bidez hezkuntza publikoa indartzeko, mobilizazioa ezinbestekoa!

### Enplegua eta muturreko ratio politika

- 27.000 irakasleko langile kolektibo batetik, 10.000tik gora gara behin behinekoak; honek %40tik gorako behin behinekotasun maila suposatzen du.
- Datozen 4 urteetarako Hezkuntza sailak 3.200 lanpostuko EPE deialdiak abian jartzeko alde-bakarreko erabakia plazaratu du.
- Datozen 4 urteetan, urteko 750-800 irakasle inguruk izango dute erretiroa hartzeko aukera.
- Planteatzen diren EPE deialdiek beraz, apenas izango dute erretiroak betetzeko eragina; behin-behinekotasuna bere horretan mantenduko delarik.
- Hezkuntza Sailak ez du adierazi EPE prozesu horiek egun lanean dauden milaka behin behinekoren kontsolidazioa ahalbideratuko dutenik;
- Are gehiago, Hezkuntza sailak berak baieztatu digu 2020ko abenduak 1eko Gobernu Kontseiluan onartutako ustezko kontsolidaziorako xedapen gehigarriak beraiek ere (kidego eta eskalen lege proiektuan txertatuak eta ELA-ren ustez kontsolidazioa bermatzen oso urrun daudenak), ez direla aplikagarri izango irakasle funtzionarioentzat.
- Denborarekin argi geratu da, Eusko Jaurlaritzak Irakasle funtzionarioentzat planteatutako eta bere momentuan beste sindikatuek babestutako egonkortasun planteamenduak ez diola behin behinekotasunak dakartzan arazoei irtenbide eraginkorrik ematen. Arrisku ugari

ditu eta irizpide objektibo orekaturik gabeko lanpostu esleipen sistema bat suposatzen du.

- Estrukturalak diren lanpostuak ez dira estrukturaltzat jotzen, ez dira lanpostu zerrenda ofizialean sartzen eta langile finkoz hornitu beharrean, urte luzez behin behineko beharrak balira bezala kudeatzen ditu hezkuntza sailak.  
  
Honek oso konplexuak diren egoerak sortu ditu hezkuntzako zerbitzu, maila eta eremu guztietako langilerian: zerbitzu eginkizunen erabilera desegokiaren ondorioz, lanpostu hauek urte luzez betetzen egon diren langile finko zein interinoen gain, Zerbitzu eginkizunetara lanpostuak ez ateratzea alde-bakarrez erabaki duenean Jaurlaritzak-IRALE edo CRI kasu; lanpostuak betetzeko titulazio zein beste baldintza batzuen aldaketen aurrean finko izateko aukerarik izan ez duten behin behineko langileengan- Lanbide Heziketako Irakasle teknikoak kasu; etab. luze bat. )
- Muturreko ratio politika aplikatzeko erabakia bereziki azken 10 urteetan. Hezkuntza sailak ez du irakasleko ikasle ratioa jaisteko inolako asmorik. Are gehiago, zenbakiak aukera ematen dioten bakoitzean gehieneko ratioa aplikatzen du. Salbuespenezko egoeretan gainera gehieneko ratio hau %10ean igotzen du eta zenbait kasutan baita hortik gora ere, nahiz eta azken egoera hau erabat irregularra izan.  
  
Ondorioak argiak dira: ikasle pilaketa, lanpostu suntsiketa, lan karga desegokiak eta hezkuntza kalitate kaskarragoa besteak beste; guzti hau hezkuntzan BPGrekiko inbertsioa gero eta baxuagoa izatearen helburuaren mesedetan.

### Lan osasuna

- Lan osasuna bermatzeko oinarri oinarrizkoak diren elementuen defizit garbia dago gure eskoletan.
- Prebentzio planak erabat zaharkituak daude (eginak dauden eskoletan); baita beraz lan arriskuen ebaluazio zein ebaluazio hauen ondorioz hartu beharreko prebentzio neurriak ere.
- Arrisku psikosozialen ebaluaziorik ez dute jasotzen prebentzio plan gehienek.
- Hezkuntza Saileko Prebentzio zerbitzuaren baliabide pertsonal gabezia nabaria da, eta bertan lanean diharduten langileek bere gain hartu ezin dituzten lan zamak dituzte.
- Ondorioak larriak dira:
  - Lan gaixotasunak ekiditeko neurri eraginkorrik ez da hartzen, ahotseko arazoak kasu.
  - Babes neurri oinarrizkoenak ere ez dira gauzatzen, errekonozimendu medikoak edo lan osasunean beharrezko formakuntza nahikoa kasu.
  - Zerbitzu eginkizunak. Lan osasun arazoen aurrean ez dira benetako konponbide.

## Lan baldintzak

### Soldatak

- 2010ean aplikatutako %5eko soldata murrizketak indarrean dirau.
- Azken 10 urteen %14 inguruko erosi-ahalmenaren galera metatua pairatzen dugu.
- Genero arrazoiengatik dagoen soldata arrakala aztertu eta honekin amaitzeko neurriak hartu beharra dago. Maisu-maistren soldatak dira baxuenak, langilegoaren gehiengoa emakumea den kidegoan hain justu.

### Erretiro baldintzak

- Itzarriko ekarpenak murriztuta. %3koak izatea adostuta egonik, urteetan egon da ekarpena neurri batean edo bestean murriztuta. Egun %1,5ekoa da eta 2021erako ere murriztua jarraitzeko asmoa dauka jaurlearitzak, %2ko ekarpenarekin.  
EAJk 2014ko estatuko aurrekontuen izapidetzan, pentsio planetara ekarpenak egiteko murrizketa bertan behera uzteko zuzenketa bat aurkeztu zuen, zeina onartua izan zen. Oso larria da Jaurlearitzan dagoen alderdiak zuzenketa hori aurkeztu, onartua izan eta gero ekarpenak ez egiteko hautu politikoa egitea.
- Erretiro primak ere etenda jarraitzen dute. Legebiltzarrean prima hauek berreskuratzeko eta urteetan jaso ez dituzten eragindako langileei ordaintzeko konpromisoa hartu bazen ere, murrizketak bere horretan jarraitzen du.
- Erretiro aurreratua. Enplegua sortzeko, behin behineko irakasleen enplegua kontsolidatzeko zein batz besteko adin nahiko altua duen kolektibo baten erreleboa bermatzeko neurri eraginkorra izan daitekeen arren, irakasleen erretiroa aurreratzeko neurri eta formularik planteatu gabe jarraitzen du Jaurlearitzak.

### Behin behineko irakasle funtzionarioen lan baldintzak. Ordezkoak eta interinoak

- Behin behineko irakasleek karrerakoek dituzten lan baldintza berdinak izan gabe jarraitzen dute, besteak beste adinagatik ordu lektiboak murrizteko aukeran.
- Oso baldintza prekarioetan lan egiten dute, bereziki ordezkapenak egin behar dituztenean (ordezkatze sistemak orohar eta ordezlagunea plataformak bereziki akats ugari izaten ditu eta akats horien ondorioak ez zaizkie konpentsatzen, gutxieneko lanaldia 1/3a izatea ez da onargarria etab.)



# Egoera hau aldatzeko ELAren aldarrikapenak

## Behin-behinekotasunaren amaitzeko behin behineko langileen bermedun kontsolidazioa funtsezkoa da ELArentzat

### Enplegu politika hobetu

#### Ratioak jaitsi eta lanpostuak sortu

- Hezkuntza hobeago bat eskaini ahal izateko.
- Irakasleen osasuna eta segurtasuna bermatzeko.

#### Behin-behinekotasunaren aurrean bermedun kontsolidazioa. Daudenak gera daitezela

- Egonkortasun agindua eta planteamendua bertan behera utzi.
- Egiturazko lanpostu guztiak azaleratu eta lanpostu zerrenda ofizialean jaso (behin behineko izendapenen erabilera abusibo eta desegokiak sortu dituen egoera bereziak kontuan hartu eta irtenbide egoki bat eman ez eragindako langileei. Zerbitzu eginkizunen erabilera desegokiaren ondorioz eragindako langileak, IRALE kasu; lanpostua jabetzan bete ahal izateko titulazio aldaketak eragindako langileak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak kasu; etabar)
- Egiturazko lanpostutzat jo behar dira gutxienez, lanpostu zerrenda ofizialean jasota dauden titularrik gabeko lanpostuetaz gain, 3 urtez gutxienez beteta egon diren lanpostu guztiak, langile desberdinek bete arren. Eta aztertu behar da urtero kidego bakoitzean errepikatzen den ordezkapen kopurua, hau ere enplegu estruktural gisa jasotzeko.
- Egiturazko lanpostu guzti horiek salbuespenezko kontsolidazio prozesu batera atera. Prozesuaren ezaugarriak:
  - Oposaketa faserik gabeko prozesu bat egituratu; eta egotekotan baztertzailea izango ez den eta gehieneko puntuazioa global bat izango duen oposaketa fasea; gehieneko puntuazio hori 1,5 urteko lan esperientziaren adinakoa izan ahalko da.
    - Meritu gisa kidego horretan lan egindako denbora baloratuko da; lan egindako denboraren arabera ordenatuz hautagaiak.
    - Estrukturaltzat jotzen diren lanpostu guztiak aterata, oposaketa faserik ez duen edo edukitzezotan baztertzailea izan gabe eta fase honi aipatutako gehieneko puntuazioa ezarri, zein meritu gisa, lan egindako denbora konputatuz, urte luzeetan behin behineko moduan lan egitera kondenatuak izaten ari diren milaka irakasle lanpostu bat jabetzan lortzea ahalbidetuko da, karrerako funtzionario izaera eta honek dakartzan berme zein eskubide guztiekin.

- ELA, bermedun kontsolidazio prozesu hau posible izateko marko arautzaile orokor baten aldarrikapenaren aldeko lanketa batean murgilduta dago. Marko arautzaile egoki horren aldeko mobilizazioa bultzatzeko gainerako sindikatu, talde eta eragileekin lanean, zein euskal alderdi politiko, Eusko Jaurlaritza zein Nafarroako Gobernuari interpelazio lanean.

### Lan baldintzak errespetatu eta hobetu

#### Soldata

- Murriztutako %5 berreskuratu.
- Galdutako eros-ahalmena berreskuratu.
- Genero arrazoiengatik dagoen soldata arrakala aztertu eta honekin amaitzeko neurriak hartu.

#### Erretiro baldintzak

- Itzarriko ekarpenak osotasunean berreskuratu.
- Erretiro primak berreskuratu eta jaso ez dituztenen zorra kitatu.
- Erretiroa 60 urterekin ahalbidetzeko formulak.
- Ordu lektiboen murrizketa.

#### Ordezkoen lan baldintzak

- Karrerako funtzionarioen eskubideekiko ekiparazioan pausoak ematea.
- Gutxieneko lanaldia lanaldi erdikoa izatea, beti ere borondatezkoa bada.

#### Betetze bermea

- Adostutakoa betetzeko konpromisoa eta adostutakoa aldebakarrez bete gabe geratu ez dadin berme formulak adostea.

#### Lan osasuna bermatu

- Prebentzio planak eguneratu. Ikastetxez ikastetxe.
- Arrisku psikosozialen ebaluazioak jaso prebentzio planetan.
- Hezkuntza Saileko Prebentzio zerbitzuaren baliabide pertsonalak gehitu.

